

Wilhelm von Humboldtten garaiko euskal ideologia politikoaren adierazpen erduetariko bat: “Aintzinako euskaldunen alabantzak”*

(A model of expression of Basque political ideology contemporary to Wilhelm von Humboldt: “Aintzinako Euskaldunen alabantzak” (Praises of the ancient Basques))

Agirreazkuenaga, Joseba
UPV/EHU. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fak.
Sarriena, z/g. 48940 Leioa

BIBLID [0212-7016 (2003), 48: 1; 265-277]

Konbentzioko gerra garaian (1793-1795) eta Napoleon aurkakoan (1808-1814) bitartean bertsoetan landu zen euskal ideologia politiko berria, liberalaren iraultza moldearen aurkako erduetan oinarriturik. Gizarte politikoaren antolakundea teokratiaz abiatuz, euskararen eta euskal legeen defentsa irmoa adierazten da. Aintzinako euskaldunen alabantzak izeneko bertsoetan eredu berriaren ikuspegi ideologikoak argi eta garbi laburturik agiri dira, herri mailako ulermenerako burutuak.

Giltza-Hitzak: Humboldt. Bertsoak. Iraultza liberala. Kontrairaultza. Mogel. Astarloa.

En el contexto de la guerra de la Convención(1793-1795) y la guerra contra Napoleón (1808-1814) se realizaron nuevas formulaciones políticas e ideológicas que justificaban la oposición a la revolución liberal y a los ejércitos franceses. Esta literatura contrarrevolucionaria utilizó formas de versificación populares para difundir los nuevos mensajes. Los versos que contiene la composición titulada “las alabanzas de los antiguos vascos” son una expresión paradigmática de los nuevos perfiles ideológicos que definirán el pensamiento contrarrevolucionario vasco: la defensa de la fé católica, las leyes forales y el euskara. Sin embargo, la defensa de la lengua vasca y la institucionalización política vasca también se realizó desde postulados liberales.

Palabras Clave: Humboldt. Versos. Revolución liberal. Contrarrevolución. Mogel. Astarloa.

Dans le contexte de la guerre de la Convention (1793-1795) et de la guerre contre Napoléon (1808-1814), de nouvelles formulations politiques et idéologiques furent réalisées qui justifiaient l’opposition à la révolution libérale et aux armées françaises. Cette littérature contre-révolutionnaire utilisa des formes de versification populaires pour diffuser les nouveaux messages. Les vers qui contiennent la composition intitulée “les louanges des anciens basques” sont une expression paradigmatique des nouveaux profils idéologiques qui définiront la pensée contre-révolutionnaire basque: la défense de la foi catholique, les lois forales et l’euskara. Pourtant, la défense de la langue basque et l’institutionnalisation politique basque a été réalisée également à partir de postulats libéraux.

Mots Clés: Humboldt. Vers. Révolution libérale. Contre-révolution. Mogel. Astarloa.

* Irudia: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Cuerpo A. X. libk., 385 or. Auñamendi Argitaletxea.

Honako txosten honetan 1801ean W. von Humboldt Euskal Herrian barrena ibili zenean, zer nolako kezka eta pentsamoldeak zeuden indarrean eta zeintzuk mito eta diskurtso historiko zabaltzen ziren populuaren ulermeneko, erakusteko, egin dut. 1995eko W. von Humboldti buruzko jardunaldietan, euskal nazioaren definiziora zelan iritsi zen agertu genuen, garaian garaiko buruzagi politikoen pentsamolde eta ekintzabidean oinarriturik, ezaguturiko esperientziatik abiatuz. 1802an Historiazko Erret Akademiak argitaratu zituen hiztegietan teoria politiko berritzaileak, aginte zentralaren bermerako, burutu eta zabaldu ziren, ohizko foru aginte egituraketa eta euskararen berezitasunak erasoz.

Orduko harian oraingoan bi gertakizunen berri ematea beharrezkoa deritzot, gure hurbilketa zehatzagoa izan dadin: alde batetik, Bilbo aldean eta frantziskotarren giroan, urtez urte gabonetan garaian garaiko gertakizunen berri ematen zen bertso bidez. Frantziskotarrak, herriz herri ibiltzen ziren misioak egiten, hau da eliza katolikoaren aginduak eta irakaspenak zabaltzen eta aldi berean bertso paperak idatzi, saldu eta zabaldu egiten zituzten Bilboko konbentuan. XIX. mende hasieran, oraindik alfabetatu gabeko hainbat jende zegoen. Baina ezin dugu ahaztu bertso paper hauek irakurriaz, alfabetatzen zirela eta sarritan nahiko zen bateren baten prestakuntza, irakurle lana egiteko talde osoa eta zabala entzule zuela. Adibidez, 1936ko gerra aurrean Argiaren irakurketa sendiko batek egiten zuen, garaiko argazkian agiri zen bezala. Beste horrenbeste XIX. mendean.

Bertso paper hauetan, ikuspegi katoliko nagusiak eta mundu ikuskerak, herritar xume zirenen ikusmoldera eta hizkerara egokiturik zeuden. Predikariak saiitzen ziren beraz euskarazko narratiban murgiltzen, bere doktrinaren ezaupidea zabaltzeko.

Aldi historikoak ere nahastu egiten ziren bertsozko adierazpen hauetan. Alde batetik ezin ahaztu, oraindik Bibliaren denbora kronologikoan oinarriturik zeudela. Baina berehala garaian garaiko gertakizunen erritmora igarotzen ziren, jauziak arazo barik eginez. Bibliako kontakizunen eta narratibaren baitan kokatzen zituzten begibistan eta bizi bizi zituzten gertakizunen nondik norakoaren interpretabidea. Herri moldetan emaniko pentsakera mota dugu eta garaian garaiko kontzientzi kultural eta politikoak arakatzeko aukeratarikoa dugu.

X. Altzibarren liburuan adibidez, Bilbo aldean, XIX. mende hasieran burutu eta argitaratu zirenak bildurik ditugu. Bestalde, Konbentzioko eta Napoleonen garaiko bertsoak A. Zavalak eta P. Urkizuk bildu dituzte. Lan horien harian K. Mitxelenak Eusko Ikaskuntzaren 9. Biltzarrean aurkezturiko saiakera ere abiapuntu dugu: "Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)".

Euskal kontzientzi kultural bereziaren adierazpena eta bertso egilearen nortasuna.

XVIII. mendearen bigarren erdian, kostaldeko Euskal Herrian eta bereziki Bilbo, Donostia eta bestelako hiriguneetan aberastasun ekonomikoaren isla nabarmendu zen. Eta ondorioz, handikien ongi izatezko gizarte molde berriaren harian, beste kezka batzuk zabaldu ziren beraien artean eta kultur gintzarako

giro berria agiri, Adiskideen Batzarrea (RSBAP) elkartearen sorrera eta garapena, garaiko lurjabe-dun eta zenbait merkataritza aberatsen adierazpide nabarmena izan zelarik. Giro honetan, hego Euskal Herrian euskarazko narratibak ere begirunea irabazi zuen, eliztarren baitan misioetako mezuak zabaltzeko eta bestetik Adiskideen Batzarreetan, X. Altxabarren artikuluan agiri den bezalaxe. Euskara nortasun iturri erakargarria bihurtu zen eta balio berritzen hasi zen, begirunea irabazi zuelarik. Ez dugu ahaztu behar, aldi berean, garaiko udal eskoletan maisuen zeregina gaztelaniaren irakaskintza bermatzea zela, eratzunaren zigorra, gaztelaniaren hizkera behartzeko, Humboldt-ek ere ezagutu zuena, indarrean zegoela. Euskara galtzen ari zen Araban batez ere eta Nafarroan.

Baina oraingoan “Antxinako euskaldunen alabantzen” inguruko iruzkina premiako dela deritzat garaiko agiri eta pentsamolde mota baten isla zuzena delako eta inon baino hobeto laburturik adierazten delako denboraren barrenean euskal pentsamolde ideologikoaren eredu edo paradigma izan dena eta neurri batean oraindik ere irauten duena.

Oraingoz behintzat ez dakigu jakin ziurtasunez zein urtetan zehazki asmatu ziren. Mezua guda giroan burutua dela dirudi. Horregatik, nire ustez, Kontzeptuaren 1793-1795ko giroan asmatuak eta bereziki Napoleonen aurkako gerrateko esperientzian oinarriturik (1808-1813) pentsatuak izan zirela, dirudite. Guda bietan Frantzes armadaren eragina jasan zen hego Euskal Herrian baina delako armada iraultza liberalaren eusle zen aldi berean.

Bertsook Juan Mateo Zabalak, frantziskotar bilbotarrarena. *Fabulas en dialecto vizcaino* bilduman agiri dira. “Berba aurrekoan “ dio “ *Euskaldunen alabantaak ez takit nik norenak*”. Besteak argitu egiten ditu: 21 J.M. Zabala-nak, 12 besteak, Mogelenak eta beste bi Salaberri eta Bixenta Mogelena.

Baina garrantzi handikoak dira zeren liburu hasieran ezarri baitzuten, sarrera gisa, J.A. Mogelen ipuinen aurretik. Delako “Sarrerea” ere guztiz argigarria da, euskararen aldeko dei sutsua eta ohizko foru legediaren aldeko nabarmenki agertuz. Juan Mateok Zabalak asmatuak direla dirudi “Sarrerea” eta “Ipuiñen aurreko jakin-beharra”.

“Bizkaiko herrietan
gara euskaldunak
egin daiguzan bada
euskeraz bertsoak
Ez dogu euskaldunak
erdera beharrik
bertsoak imintzeko
ondo apaindurik

Euskeraz kantateko
prest nago ni beti,
Bizkaitarren legea
Ez galtzea-gaitik
Ezin itzi guinaie
Bizkaiko lurrian
euskeraz kantatea
ondo jakunean.”

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.
Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.
Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

“Antxinako euskaldunen alabantzak” Sarrera eta Ipuinen aurreko jakin beharraren” bertsoen artean txertatuz, lehentasun garrantzitsua dutela adierazten du, manifestu gisako indarra dutelako agian, ideologia jakin baten adierazle eta J.M. Zabalak berak asmatuak ez badira, bere inguruan sortuak direla adierazten du. J.A. Mogelen garaikoak agian edo Mogeldarren girokoak, horretan ez dago zalantzarik. Bai Bixentak eta Juan Josek antzeko bertso motak argitaratu zituzten 1814 eta 1823 urte bitartean, forma eta eduki berekoak. Eta estrofa batzuk Bixentak 1819an argitaratu zituen “gabonetako bertsoetan” hitzez hitz hartzen ditu. Beraz giro bereko bertso egile kulto batek asmatuak dira eta beharbada Bixenta Mogelenak. K. Mitxelenaren iritzian, Dogdsonek nunbaiten azaldu zuenez gero, 1817koak dira bertsoak baina datu zehatz honen iturria zehazterik edo argitzerik nire aldetik ez dut izan, oraingoz behintzat.

A. Zelaietaren ustez, antzekotasun nabaria agiri dute, edukiari dagokionez, Pedro Astarloa, Bilboko S. Franzizkoko konbentuko agintariak *Urteko Domeka gustijetarako verbaldi ikasbidekuak, zeintzubetan azalduten dan Erromako katesismua*, Bilbon Pedro Apraizen moldategian 1818an argitaraturik, izeneko liburuaren sarreran agertu zituenekin. Konbentuan bertso paperak sarritan argitaratzen zirenez gero, bere eskukoak zuzen zuzenak ez izan arren, bere ideietan oinarriturik bai behintzat.

Egile zuzena aurkitu ez arren, koplak zentzu korala hartzen dute, Bilboko San Fraiskuko komentuan ohikoak zirelako. Koru horretako nortasun nabarmeneko pertsonak Mogeltar edo Astarloatarrak ditugu. Abandon bizi zen Bixenta Mogel bere senarra Eleuterio Basozabal eta J.P. Ullibarri euskaltzale sutsuak. Euskara galtzen ari zela eta bere prestijio soziala txikia zela, erabat jabeturik zeuden. Eta egoera hori aldatzen saiatu ziren (“*asi el como su esposa doña Vicenta de Moguel son muy afectos al Bascuence y desearían que esto se verificase para dar alguna estimación a nuestro idioma que se va perdiendo*” Juan Manuel Sagarminak Juan Mateo Zavalari idatzi zion gutunean 1831ko otsailaren 17. (L. Lezama Leguizamonek idatzi zuen eranskinean, J. Ruiz de Larrinagaren liburuan, 87) Azkenik gogoratu, Antonio Zabala “Gabonetako otsaldiak” izeneko koplak egile eta argitaratzailea 1814an izan zela.

Konbentzioko gerraren garaiko koplak, “erregea, Fedea eta Herriak” aipatzen dira. Bixenta Mogelen bertsoetan Bizkaitarrak, aldiz, orain ikusiko ditugunetan, Euskaldunen alabantzetan, euskaltzaletasuna sendoagoa eta agerikoa dugu.

Baina nire ustez data zehatza bezain garrantzitsua, bertan adierazten den mezua, azpimarratzekoa dugu: euskaraz burutuak, herri mailako hizkeran idatziak, kosmogonia baten arketipo gisara pentsatuak eta bertan adierazita-ko logika, gaurregunerarte iraun duela Euskal Herrian.

Ikuspegi teokratikoa hain da nabarmena, zeren ez baita azaltzerik delako irmotasuna, ez bada esperientzian jasan, ekimen eta botere politikoaren ikuspegi zibilaren eragina. Bertso horietako ideologia eta zergatiak, bi mendetan paradigma ideologiko gisa iraun dute, bereziki euskaltzaletasunaren giroan.

Guzti horregatik deritzot, testu ideologiko fundatzailetzat har genezake, Euskal Herria modernitatean sartzen ari zeneko garaian. Iraultzaren proposamen berritzaileak bezain besteko garrantzia dituzte. Kontrairaultzaren molde-tan formulatu eta gihartu zen pentsamoldea eta kultura politiko berriaren adierazpena agiri da, tradizio berri baterekiko leiala izan omen nahi zuena. Tradizioaren lotura aldarrikatzen zuen baina berez iraultzaren formulazioen arabera adierazten ditu bere ezaugarriak.

Horregatik iraultzak ekartzen zituen berrikuntzen arabera dugu kontrairaultzaren ikuspegia. Sarritan betikoa eta ohiko edo tradizioarekiko atxikitua zelakoaren itxura eta ustea azaldu arren, kontrairaultzaren pentsamoldeak iraultzaren eginkizunak aztertu barik, ez dira ulergarri bihurtzen. Kontrairaultzaren alternatiba iraultzaren ereduaren arabera da soil soilik eta garaian garaiko kezketan gihartua, bere ideologokoak bestelakorik adierazten saiatu arren.

Antxinako euskaldunen alabantzak izenekoa, ipuin liburuan sarturik dago eta ipuinaren ikuspegia adierazten du, ondorio morala helburu duela. Ipuina beti garai eta denbora historikoan kokatzen du kontakizuna eta berez kople-tan agiri zaiguna, Euskal Herriko historiaren paradigma interpretatiboa dugu argi eta garbi adierazita: bertsook nortasun kultural, politikoa adierazten dute alde batetik eta bestetik etsai versus adiskide dialektikan interpretatzen dute Euskal Herriaren nondik norako historikoa. Ikuspegi hau, esperientzia historiko desberdinen aurrean joan zen gorpuzten. Ez zen sortu eta formulatu bat batean. Azkenik, ikusmolde hauek, kontrairaultzaren molde ideologikoe-tan kokatu eta gihartzen da.

Euskal berezitasun kulturala eta tokian tokiko aginte politikoaren formu-lazioa argi eta garbi euskal erakundeen buruzagi zirenak formulatu zuten XVIII. mendearen bigarren erdian.

1764an Adiskideen Batzarrea elkarte sortu zenean, euskal kultura eta nor-tasuna lantzeko, nabarmentzeko eta goratzeko sortu zen. 1765an Gasteizeko batzarrean onaturiko estatutuetan, IX. atalean zera adierazten zuen: “*se aplica-ran a pulir y cultivar la lengua Bascongada, o recopilar lo mas raro y escogido que haya escrito en ella, asi en prosa, como en verso y a perfeccionar la poesia Bas-congada*”. Ondoren, Carlos III. Espainiako erregeak onartu zituen Estatutuen VI. atalean “Comisión de historia, política y buenas letras saila antolatu zen eta bere zereginetarikoa zen “*dedicarse a la Historia y Geografía Nacional, y a la len-gua y poesía Bascongada*”. Euskararen ezagutzaren garrantzia Bergarako Erret mintegian aintzat hartu zen. Hezkuntzaren bidez buruzagi berriak jakituria eta prestakuntza bereziaz jabetu behar ziren, ondoren agintari zuzenak izateko. Argiak lortu behar zituzten, modu argitsuak agintari izateko. Ilustrazio garaian gorengo mailako ikasketak eta ikerketak burutu ziren eta bazirudien Euskal kul-tura eta argien bidezko kultura erabat uztarturik eta loturik agertuko zirela etorki-zunean. Humboldt Euskal Herrira etorri zenean, Adiskide Batzarretako buruzagi batzuekin harreman zuzena tratatzeko aukera izan zuen. Baina kritikatu zuen Adiskide Batzarretako elkartearen emaitza, azken batean, bertatik ateratzen ziren pertsona ugari, karrera militarrean aritzeko baino ez zirelako arduratzen.

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.

Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.

Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.



Fausto de Elhuyar Lubice.

Adiskideen Batzarrearen bidez eta beraien Bergarako egoitzan, 1775an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal agintarien arteko bilkurak berriz indarberritzen hasi ziren. “Conferencias” izenarekin ezagunagoak ziren eta aurrerantzean, 1936arte bilkura hauek ohizkoak bihurtu ziren. Bilkuren ondorioz, euskal aginte politikoa landu eta erakutsia izan zen eta bilkura hauetan euskal nortasun politiko berria landu zen, iraultza liberalen ondorioz eratzen hasi ziren erakundetze politiko berrien eredupean, bereziki, Espainiako estatu-nazio liberal berriaren ildoan.

Baina aldi berekoak dira matxinadak, bereziki, 1766koa. Matxinoek, legez eta ekimenez indartzen ari zen ekonomiaren ikuspegi liberal eta kapitalistaren aurkako adierazpenak aldarrikatzen zituzten. Matxinoentzat, bidegabekeria onartu ezinekoa inondik inora ikuspegi moraletik

zen pertsona batzuk beste batzuen lepotik aberastea eguneroko mantengaien trafikoren bidez. Salerosketaren bidez ez zen bidezko ez eta premiazko produktuen medioz beste inoren lepotik aberastea eta ondorioz bizimodu ero-soagoa lortzea. Matxinadetan helburu garrantzitsuena horixe zen: ekonomiaren dinamika ikuspegi moral zuzenean finkatzea. Ekonomiaren dinamikak gizakion premiak betetzeko zegoen eta ez besterik. Eta ikuspegi honek gizakion artean indar handikoa zen orduan eta gaurregunean ere.

Adiskideen Batzarrearen baitan aldiz, bestelako ikuspegi ekonomikoak nagusitzen ari ziren. Adibidez, F. Elhuyarrek Somorrostroko meategien mea erauzketaren prozesuaren antolaketa soziala eta ekonomikoa aztertu eta alternatibak argitaratu zituenean 1788ko Adiskideetako Batzarrean, argi eta garbi, kapitalista sistemaren azalpena egin zuen, bertako ekonomia aurrerabide eta garapenean sartzeko. Antzeko iritzia erakutsi zuen W. v. Humboldtek Somorrostroko meategien mea erauzketaren deskribapena egin zuenean. Erauzketarako, bertan oinarriturik zegoen herritarren arteko antolaketa alboratu zuen inplizitoki besteren bat, Elhuyarren antzekoa agian, hobesten zuelako.

1789ko iraultzaren ondorioak ikusi ondoren, iraultza liberalaren mundu berriaren beldurpean, euskal nortasunari buruz gogoetak berrausnartu ziren eta tradizionalismoaren paradigmatik indartu egin ziren edo azaleratu bai behintzat.

Poeman agiri diren galderak eta erantzunak, 200 urte iraun dute. Euskaldunen aintzinatea izango da usterik zabalena eta aldaketan aurrean “menditarren” “goi-herritarren” ohizko bizimodua bilakatzen da benetako jatorrasunaren iturburu. Ikuspegi jatorraren moldea nagusitzen doa. Berau, 1634eko matxinadan, formulatu zen honezkero. Gatzaren gaineko zerga edo

monopolio ezarri behar zuenaren aurka altxatu zen Bilboko herria eta beste batzuk. Gernikan bildu zirelarik matxinoak aldarrikatu zuten benetako bizkaitarrak menditarrak zirela, mendiko biztanleak eta ez hiriko kapa beltzadunak. Ikuspegi hau ondoko mendeetan errepikatu egin zen.

Tokian tokiko propioztat hartzen dena bihurtuko da, ikuspegi horretan, benetako jatortasunaren erakusle. Beraz, ondoko edo bestaldekoena erbestekoa, arrotza izango da. Pentsamolde honetan, “fedea, geure legeak, eusker”, bihurtuko dira euskal nortasun jatorraren abiapuntu eta eduki nagusi.

Euskaldunen iragan eta etorkizun berriaren adierazpen ideologikoa eta nortasun politikoa finkatuz.

Bibliaren esanen arabera pentsatzen zen denbora eta historiaren nondik norakoa. Beraz gertakizun guztiak Bibliaren kontakizunaren kronologian egokitu eta kokatzen ziren.

Bilbo inguruan, garai horretan, hainbat gabon kanta argitaratu ziren, goian gogoratu izan dugun legez. Mogel eta Astarloatarren artean, ideiak behin eta berriz errepikatzen dira eta formula jakin batzuk egile desberdinen kopletan agiri zaizkigu: adibidez burrukarako deialdia egiten den unean, euskaldunak “emetu” ohi direla salatuaz.

Hasierako bertsoak, Bibliaren eta bereziki ebanjelioaren kontakizunaren ildoan kokaturik ditugu:

“Antxinako euskaldunen alabantzak” horrela hasten dira:

“Jaunaren lege ona
euskeran da sendo,
Adan-eganik ona
garbi eta ondo.
Gorde izan da beti
garbiro fedea,
baita geure legeak
eta berbeitea.

Erbestear gaistoak
nahi eukezan galdu
euskaldunak ez tabe
bururik makurtu.
Beste herri askotan
jaretxi arren hau,
eztau-iñoz guretan
kanpokoak agintau.”

Bertso hauetan, Euskal Herriaren historia laburtzen da. Azpimarratzekoa dugu euskaldunak direla sujeto politikoak. Bertso guztietan euskaldunak alde batean, komunitate irmo eta sendo gisa sortuko dira eta bestetik atzeritarrak. Beraz norbera eta aurreko aurkariak, komunitatea eta gainontzeko erbestarrak. Dialektika hori agiri zaigu. Eta ikuspegi hau berritzailea dugu,

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.

Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.

Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

euskaldunak agiri ziren heinean eta delako euskaldunak nortasun politiko komunitario gisa ulertzen direlako. Garai berebean, Bixenta Mogelek 1810ko hamarkadan Abandon argitaratu zituen kopletan, aldiz, bizkaitarrak dira: “*Gabonetako kantia Bizkaitar guztientzat, euskaldun emakume batek aterria, 1819.garren urtian Abandoko elixatian*”.

1814an Fernando VII. Espainiako Errege izateko Frantziatik itzuli zenean, Abandon eta Bilbon euskal bertsoak argitaratu ziren eta goratu egiten da:

“Poztu gaitezan
egun honetan
eskerrak millaz Jaunari.
Mesede handijak
eginagaitik
gure Españako
lurrari
(...)
Iñok elexien kontra
ezer esaten dau?
ez eijozu parkatu
barriketa zital hau.
Garbirik jaon daizun
zure elijiñoia
irme sendatu eizu
inkisizinoia.”

Bixenta Mogelen eskukoak ziren bertsoak seguru asko. Bilboko Santiago elizan Bilbon kantatzeko gabonetako bertsoetan ere antzeko bertsoak agiri dira Pedro Estorki Maisuak musikatuak. Pozarren agiri dira Espainian berriz Fernando VII. sartu zelako eta lege zaharreko erregetza agintaritzan ezarri dezan, deialdi garbia agiri da aipaturiko bertsoetan.

Bestalde, euskararen garrantzia goratzeko, Jaungoikoaren lege onaren zati bezala agiri da. Beraz, hizkuntza berezia eta sakratua bihurtzen da, modu horretan bere nortasun bereziz babestuz. Euskal erakundeetako legelariak aldarrikatzen zituzten ohizko mitologia politikoaren dogma nagusiak inon baino hobeto azalduta eta laburturik ditugu: jatorrizko independentzia, hau da, euskaldunak inoiz ere ez dira makurtuak izan, horregatik iraun du beraien legea eta gorde fedea eta euskera. Euskararren iraupena etorkizuneko askatasunaren garantia da. Euskarak komunikazioaren hesia sortzeko gaitasuna zuelako, euskal komunitatea atzerritik zetozen ideologia kutsagarrietatik libre mantenduz. Kristautu aurretik jadanik, Adanengandik lotura izanik, monoteista izan omen ziren, euskaldun jatorren berezko senaren ondorio zuzena, alegia.

Bertsoak idatzi zituenak jakituria historikoa eta politikoa ere agiri du.

Erbestetarrak eta barrukoak: elkarren aurkako dinamika hori, bizi bizi agiri da adierazita. Beraz, bertso asmatzaileak izan ditu gerraren bidezko inbazioen berri: Konbentzioko gerran gertaturikoa agian edo gero Napoleonek eragindakoa agian, bibliaren eta historiaren kontakizunean kokatzen du. Etsaiak, erbestetik datozenez gero, euskaldunak beti burrukan egon ohi dira

eta sekuentzia historikoa deskribatzen du: Anibal, Erromako Augusto eta erromatarrak, godoak eta mairuak. Horra Euskal historiaren sekuentzia kronologikoa. Baina giro latzean idatzirik zeuden bertsoak, liberal iraultzaren ondorioak begi bistakoak zirelako, batez ere fede katolikoaren nagusitasuna ere kolokan jartzen zuten. Horregatik galdera esistentziala eta metafisikoa egiten du:

“Zergatik deritxazu
hainbeste neke lan
euskaldunen artean
beti hartu joian(ohi zuen)?
Gordetarren zintzoro
jaunaren fedea
geure lege garbiak
geure euskerea.”

Inork ere ez du lortu aginterik ezartzea eta azpiratzea euskaldunen borondatea. Baina XVIII. mende bukaeran eta XIX. mende hasieran burrukak daude Euskal Herrian eta zergatia aurkitu beharra zegoen, aukera bat lejitimatzeko hiru helburu nagusiren arabera: fedea, lege garbiak eta euskerea. Burruken eskema interpretatibo hori gaurdaino iraungo du, arerio/adiskide paradigmapean. Baina oraingoan arerioa barruan ere dagoen ezkerro, gaztelaniaz bakarrik egitea ez da nahiko, apologista legelariak egiten zuten antzera. Oraingoan gizarte barrura ere begiratzen da eta euskaraz adierazpenak egin behar dira etorkizuna euskal gizarte barruan ere irabazteko.

Bertsoak helburu mobilizatzailea ere badute eta badirudi gerra giroan burutuak izan zirela. Kasu horretan Konbentzioko gerraren garaian edo Napoleonen aurkakoa. Horregatik aurreko azterketa historiko eta politikoaren ondoren, arbasoen portaeretan oinarriturik esaten du:

“Alkar ondo harturik
diño: Lehenago
ondata ta hil danok
azpiratu baino”
Eztoko, euskaldunak
lehengoen fedea?
haen euskara laua
et'aren legea?
Zer: emetu aldira
gutarren bihotzak?
baita askok berbetan
dirudie motzak?
(...)
Ea ba euskaldunak
azkortu gaitean:
gabiltzan beti zuzen
ta sendo fedean.
Geure bizierera
arteztu bagarik
ez dogu ikusiko
iñoz egun onik.

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.
Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.
Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

Ez aldean guk galdu
herriko legea,
eta antxinatik, dogun
geure euskerea.
Gogoan beti euki
lehenengotik oná
sartu ez dala arrotzik
agintetan oná.“

Azken bertsoek burrukalari berrientzat ikuspegi ideologiko garbia adierazten dute. Helburuak jartzen ditu eta etsaiak nortzuk diren ere bai. Aurreratzean beraz, foru legeak eta euskera ikuspegi teokratikoaren baitako atalak baino ez dira izango. Etsaiak, arrotzak, erbestekoak izango dira baina herriaren barruan ere agiriko dira. Bertso hauen bidez, seinalatzen da jatortasuna non kokaturik agiri den eta hortik kanpoko guztiak erbestetar gaiztotzat hartu beharko dira.

Koplak, barruko euskal gizarteari begira pentsatuak eta formulatuak izan ziren.

1794an Bilbon Santiago elizarako argitaratu ziren bertso paperetan ideia nagusiak ezarriak izan ziren: adibidez 10 estrofan zera esaten zen:

“Bakotxak egiten dau
hemen al dabena
jakinik dala gerra
Jaunak nahi dabena
fraile ta abadiak
besteekaz batera
badira dira pozarren
armak hartutera

Señorijo, Konsulau
ta Urjia alkarturik,
aberatsak izanda
dagoz pobreturik,
emoten ditubela
ondasun handijak,
gordetearren errege,
fedea ta herrijak.”

Azken bertso honetan helburu politikoen muina adierazten da, non erregea eta fede katolikoaren defentsak eta herrien nortasuna agiri dira ardatz nagusizat.

Bestalde, eta euskal agintarien agirietan dinamika politiko berrien aitzinean zeudela nabarmentzen zen. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako eta euskal erakundeetako agintariak, 1793an bildu zirenean, foruen aldeko konstituzioaren alde elkarren arteko lankidetzaz sendotzeko neurriak hartu zituzten. Ondoren 1808an ere Foru Konstituzioaren aldeko aldarrikapen ideologikoak egin zituzten Baionan bildu zirenean Espainiako ordezkariak

Bonaparteren Konstituzio politikoa eztabaidatzeko eta onartzeko. Foruen agintearen defentsa ez da egiten paradigma teokratikoan finkaturik, euskal gizartearen ongi izate, ekonomiaren garapen eta historian zehar finkaturiko esperientzian oinarriturik baizik. Badago bada, aldea.

Beste horrenbeste, gogoratu behar da euskarari buruz. Euskal liberal euskaltzaleak ere agiri zaizkigu garai berberean. Eta guztien artean beste apaiz bat aipatu behar dugu: Agustín Pascual Iturriaga. Berau dugu euskararen alde bestelako ideologia baten sortzaile eta eragile. Gipuzkoako Batzar Nagusiak 1830n Diputazioari laguntzeko, batzorde berezia antolatu zuen, industria, merkataritza eta euskararen egoera aztertu eta alde berean berriztapenak burutzeko. Euskarari dagokion txostena A. Pascualek idatzi zuen: *“Memoria sobre el decreto de las últimas Juntas Generales de Mondragón relativo a la conservación de la lengua Bascongada”*.

Azterketa zehatza egin zuen euskararen gainbeharren zergatiak arakazterakoan eta zera adierazten du, aginte politikoaren hizkuntza azken batean nagusitu egiten da, ondokoak baztertuz.

“Si los países o provincias, en que las lenguas son diferentes, pasan a ser partes integrantes de un estado o una nación, la lengua que adopta por suya el gobierno será la dominante porque todos los intereses y ventajas se reunirán para cultivarla y generalizarla. Prevalecerá pues sobre todas las demás, enriqueciéndose cada día y ... acabará por eclipsarlas hasta hacerlas desaparecer totalmente”

Guzti honek gaztelaniaren nagusitza Euskal Herrian adierazteko balio du. Horregatik hizkuntzaren metafisika apologistari kritika zorrotza eginez, eskolan, irakaskuntzan eta hizkuntzaren prestijioan zetzala hizkuntzaren berbizkondearen koska esan zuen. Liburuak behar ziren, euskara kultua asmatu, landu eta zabaldu: *“Ya hemos probado que las lenguas dominantes prevalecen sobre las que no lo son porque se cultivan con preferencia a ellas. Cultivemos el vascuence”*. Gaztelania hizkuntza zabaldu gisa lantzearen aldekoa zen baina euskaratik abiatuz. Gehiketaren teoria proposatu zuen: Gaztelaniak edo euskarak bere kasuan, gehitu egiten zuen pertsonaren hezkuntza eta berez ez dira kontrajarriak. Agustín Pascual Iturriagak, 1833ko gerra karlista eta euskaldunen artekoa ere izan zena, Muñagorriren Foruak eta bakearen bertso famatuak idatzi zituen.

Giro eta eztabaida hauek ezagutu zituen W. von Humboldtek bisitari Euskal Herrian, Parisen Joseph Dominique Garaten bidez euskara eta euskaldunei buruzko informazioa jaso ondoren, besteak beste.

Euskarari buruzko erabilpen eta ardura eza zela euskal buruzagi politikoki argien artean, salatu zuen eta euskarak ez zuela etorkizunik ikusi zuen. Baina bere begirada zorrotzaren lanean zera ikusi zuen: hemen bazegoela nazio kulturala, batez ere nabarmen nabarmena iparraldean izanik. Eta bestalde, mendebaldeko hiru probintzietan, nazio politikoaren arrastoak ere agiri-koak zirela. Arduratsukoak zeuden politikan, foru sistemaren etorkizunaz

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.

Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.

Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

eta autogobernuaz, hizkuntza, hau da euskararen etorkizuna bestearen ondorio soila eta argudioetarako armarria zelarik.

Hala ere, euskararen erabilpena gero eta arruntagoa bihurtzen ari zen XIX. mendean barrena, euskaldunei begira mezuak eta ideiak burutzeko. Euskaraz pentsatu beharra zegoen, euskaldunen atxikimendua lortzeko. Eta datu hau berria zen hegoaldean. Iparraldean aldiz XVI. eta XVII. mendean euskararen funtzionalitatea eta kontzientzia linguistikoa ezagunagoa eta nabarmenagoa izan zen. Horra ba,aldi berrian iraultza liberalaren dinamikan, Frantziako hiritarren Asambleak politikoak frantzesak aldarrikatu zuenean hizkuntza nagusi eta ofizial bakartzat konstituzio berrian, hizkuntzen arazoa politizatzen hasi ziren, beste hizkuntza asko alboratzen zituztelako.

Humboldtak aldiz, berezitasunaren eta aniztasunaren alde onak aldarrikatu zituen, oztupo baino aberasgarria gertatzen zelako etorkizuneko gizarteetan.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, J. *La articulación político institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1995, II liburuki.
- ALTZIBAR, X. *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, astarloatarak, Frai Bartolome. Nortasuna, idazlanak, grafiak*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1992.
- ALTZIBAR, X. "Euskara Adiskideen Batzarrean". In: *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*. Vitoria, 1985, 1119-1135 orr.
- ARISTIMUÑO, Joseba. *Euzko Alegiak*. Donostia, 1934.
- ASTARLOA, Pablo. *Apología de la lengua Bascongada o ensayo crítico filosofico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen: en respuesta a los reparos propuestos en el Diccionario Geográfico histórico de España, tomo II, palabra Nabarra*. Madrid: Don Geronimo Ortega, 1803.
- ASTARLOA, Pedro. *Urteko Domeka gustijetarako verbaldi ikasbidekuak, zeintzuben azalduten dan Erromako katesismua. Eurretan aurkituko dabe Arminazain euskaldunak, eure elextar edo feligresari predikadu bihar deutzen ikasbidia: Baita bere kristinai euskaldunak, zer jakin eta egin bihar dabeen*. Bilbo: Pedro Apraiz, 1818, bigarren liburua.
- ECHEGARAY, C. "Informe acerca del trabajo: El vascófilo franciscano R.P.Fr.J. M. De Zabala". In: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, San Sebastián, 1927, XVIII, 298-301 orr.
- INTXAUSTI, J. *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1990.
- IRIGOIEN, A. "Bilbo eta euskara". In: *Euskera* 22. Bilbo, 1977.
- KINTANA, J. "Euskarazko historiografia(I): aurrekariak eta lehen pausoak (XVI-XIX mendeak)". www.kondaira.com, 1, 2003.
- LEZAMA LEGUIZAMON, L. "El vascófilo R. P. Fr. Juan Mateo Zabala (Apéndice bibliográfico)" In: *RIEV*, 1924, XV, 337-350, orr.

- RUIZ DE LARRINAGA, J. *El vascófilo franciscano Fr. Juan Mateo de Zabala. Estudio bibliográfico*. San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa, 1927.
- URKIZU, P. *Bertso zahar eta beri zenbaiten bilduma (1798)*. Durango: Durangoko Udala, 1987.
- ZABALA, J.M. "Fábulas en dialecto vizcaíno". In: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. París, 1907, n. 1 eta 5.
- ZABALA, J.M. *Fábulas en dialecto vizcaíno*. Bilbo: Euskal editoreen elkarte, 1986, A. Zelaietaren edizioa.
- ZAVALA, A. *Frantziako iraultza eta konbentzioko gerra bertsoan. (bertsoak)*. Donostia: Etor, 1989; 170 or.
- ZAVALA, A. *Frantzezteko bertsoak*. Tolosa: Auspoa, 1991, II liburukia, 27-37 orr., 1814ko bertsoak.

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.
Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.
Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.